

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Mungiako Udala****Diru-laguntzen 2020-2023 Plan Estrategikoa aldatzea**

Udalbatzak 2021eko uztailaren 30ean hartutako erabakiaren bidez, honako akordio hau hartu zan:

1. Mungiako Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea 2020-2023 aldirako Eranskinean jasotako diru-laguntzak sartuz.
2. 2020-2023 aldirako Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren 11. artikulua aldatzea. Artikulu hori honela geratuko da:

«11. artikulua.— Arloak

Mungiako Udalak honako kudeaketa arlo hauetan emango ditu diru-laguntzak urtero, plan honen eranskinetan zehaztutako Udal Aurrekontuaren sailkapen organikoarekin bat etorrira:

Programa organikoa	Deskribapena
00	Alkatetza
22	Hirigintza Diziplina
30	Gizarte Ekintza eta Berdintasuna
42	Kirola
43	Kultura
44	Euskaltegi
50	Baliabide Orokorrak

3. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Diru-laguntzen Plana osorik argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikulua arabera, Toki Gobernua modernizatzeko neurri buruzko abenduaren 16ko 53/2003 Legeak aldatua.

4. Erabaki honen berri ematea dagokien sailei, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzaten.

Jarduneko Alkateak, Alaitz Erkoreka Baraiazarra andreak, agindu eta sinatzen dau.

Mungian, 2021eko abuztuaren 2an.— Alkatea

**ERANSKINA****HIRIGINTZA DIZIPLINA, OBRA ETA ZERBITZUEN SAILA**

DIRU-LAGUNTZAK, 2021-2022AN MUNGIAKO UDALERRIKO BIZITEGI-LURZORUKO ERABILERA EDO GOZAMEN PUBLIKOKO ETA MANTENU PRIBATUKO GUNEETAN KONPONKETA-, MANTENTZE- ETA ZAINKETA-PROIEKTUAK EGINGO DITUZTEN ENTITATEENTZAT

— *Xedea*: Mungiaiko udalerriko bizitegi-lurzoruko erabilera eta gozamen publikoko eta mantenu pribatuko lurzoruetako espazio irekietan egingo diren mantentze-, konponketa- eta zainketa-proiektuak diruz laguntzea

— *Onuraduna*: Kontserbaziorako hirigintza erakundeak, jabekideen erkidegoak eta jabekideen erkidego elkartuak.

Helburuak

Udalerraren eremu ezberdinak egituratzea.

Auzoetan gune publikoak berreskuratzea eta elkarbizitzarako tarteko guneak sortzea.

Lortu nahi diren emaitzak

Espazio publikoen kalitatean edo mantentze-mailan ez egotea desberdintasunik auzo edo egoera juridikoaren arabera.

Udalerria indarberritzea, ingurumen-irizpideak ardatz hartuta.

Bizitzeko erosoagoak diren espazioak sortzea, bertan bizi(ko) diren norbanakoen eta familien bizi-baldintzak hobetuta.

Udalerriko zonaldeak lotzen dituen bide-sarea hobetzea.

Urteko kostua

500.000 euro.

Funtzionala

1533.

Finantziazioa

Udalaren diru-funtsak erabilia, hain zuzen ere aurrekontuko IV. eta VII. kapituluetaoak.

Esleitzeko prozedura

Diru-laguntza mota: norgehiagoka.

KIROL SAILA

— *Xedea*: Herriko Eskola Kiroleko Planean sartzen diren jarduerak antolatzea.

— *Onuradunak*: Herriko Eskola Kiroleko Planean parte hartzen duten ikastetxeetako Gurasoen Elkarteak.

Helburuak

Mungiaiko ikastetxeetako Gurasoen Elkartei laguntza ematea herriko Eskola Kiroleko Planaren barruan sartzen diren urteko jarduerak garatzeko.

Lortu nahi diren emaitzak

Eskola Kirolari dagokion garaian jarduera fisiko masiboa sustatzea.

Umeen garapen ebolutiboa hobetzea jarduera fisikoaren bidez, betiere, ohitura osasungarrietan eta jarrera partehartzaile eta integratzaileetan oinarrituta.

Eskolaz kanpo egiten den jarduera fisikoa ikastetxeen Heziketa-programan txertatzen laguntzea.



Herriko ikastetxeetako Gurasoen Elkarteei laguntza ematea urtean egiten duten lana gauzatzeko.

Urteko kostua

25.000,00 euro.

Funtzionala

3411.

Finantzazioa

Udalaren diru-funtzak erabilia, hain zuzen ere aurrekontuko IV. Kapitulokoak.

Esleitzeko prozedura

Diru-laguntza mota: norgehiagoka.

GIZATE EKINTZA ETA BERDINTASUN SAILA

— *Xedea*: zuzeneko diru-laguntza ezohikoak ematea bazterketa-egoerei erantzuteko eta pertsona eta familien integrazioa bultzatzeko.

— *Onuradunak*: gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden eta oinarrizko beharrei erantzuteko gai ez diren pertsona edota bizikidetz-unitateak (Mungian erroldatutakoak).

Helburuak

Diru-laguntza puntualak —ez aldizkakoak— eta izaera subsidiariodunak ematea euren beharrezan erantzun ezin dieten norbanakoei edota bizikidetz-unitateei; baldin eta, pertsona horiek kapaz ez badira euren beharrezan beste babes sozial batzuen bidez asetzeko (administrazio publikoek edo erakunde pribatu zein gobernukoek emanandako babes sozialen bidez hain zuzen ere).

Lortu nahi diren emaitzak

Gizarte-bazterketako egoerak ebitatzea edo arintzea.

Urteko kostua

10.000 euro.

Funtzionala

2314.

Finantziarioa

Udalaren diru funtsak erabilia finantzatuko da, hain zuzen ere, aurrekontuaren IV. kapitulukoak. Partida: 30/2314/48001.

Esleitzeko prozedura

Diru-laguntza mota: laguntza zuzenak, puntualak —ez aldizkakoak— eta izaera subsidiariodunak.

SAILA: BALIABIDE OROKORRAK

— *Xedea*: COVIDa kudeatzeko ezarritako alarma-egoeraren ondorioz euren jarduera eten behar izan duten Mungiako negozioen jarduera ekonomikoari eustea, baita negozio horiei lotutako enpleguari eustea ere.

— *Onuradunak*: pertsona fisikoak (autonomoak edota profesionalak, eta izaera juridikorik ez duten ondasun-erkidegoen eta elkarte zibilen bazkideak) edo pertsona juridikoak, legez eraturako mikroenpresen atalean sartzen direnak.

**Helburuak**

COVID-19aren krisi ekonomikoak eragindako krisi ekonomikoa arintzea eta berehala erantzutea; eta Mungiako udalerriko jarduera Ekonomikoa sustatzea.

Lortu nahi diren emaitzak

Mungiako herritarren interes orokorra babestea, COVID-19ak sortutako krisi ekonomikoaren eragina minimizatzeko, eta, osasun-larrialdia amaitu ostean, udalerraren ekonomia ahalik eta arinen suspertzeko.

Urteko kostua

81.000,00 euro.

Funtzionala

2317- Covid 19.

Finantziakoa

Udalaren diru funtsak erabilia finantzatuko da, hain zuzen ere, aurrekontuaren IV. kapitulukoak.

Esleitzeko prozedura

Diru-laguntza mota: zuzena.